

# AHOLKU BATZORDEAREN EBALUAZIOA PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTA ERABILTZEKO (BEGIRA)

Egilea:



Lanketa:



Laburpen exekutiboa  
(2018ko Abenduaren 7a)

## AURKIBIDEA

<b>AURKIBIDEA</b> .....	<b>2</b>
<b>ESKERTZA</b> .....	<b>3</b>
<b>EBALUAZIOARE HEDADURA ETA HELBURUAK</b> .....	<b>3</b>
<b>EBALUAZIOAREN IKUSPEGI METODOLOGIKOA</b> .....	<b>4</b>
<b>EBALUAZIO-MATRIZEA</b> .....	<b>5</b>
<b>BEGIRAREN HELBURUAK</b> .....	<b>7</b>
<b>EBALUATZEKOAK DIREN BEGIRAREN EKINTZAK</b> .....	<b>7</b>
<b>EBALUAZIOAREN LORPEN NAGUSIAK</b> .....	<b>7</b>
BEGIRAREN EGOKITASUNA/EGOKITZAPENA.....	8
ERAGINKORTASUNAREN EBALUAZIOA .....	9
ERAGINKORTASUNA BEGIRAREN FUNTZIONAMENDUAN .....	9
ERAGINKORTASUNA. BURUTUTAKO JARDUERAK .....	9
BEGIRAREN ERAGINKORTASUNA, ASEBETETZE-MAILA ETA BALORAZIOA.....	13
ERAGINA. AGENTZIAK ETA HEDABIDEAK.....	13
<b>ARRAKASTA-FAKTOREAK BEGIRAREN HELBURUAK LORTZEKO ETA BERE IRAUNKORTASUNERAKO</b> .....	<b>14</b>
ARRAKASTA-FAKTOREAK. BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDUA .....	14
ARRAKASTA-FAKTOREAK. BURUTUTAKO EKINTZAK.....	15
<b>HOBETZEKO ALDERDIEI AURRE EGITEKO BEGIRAREN ERRONKAK</b> .....	<b>16</b>
FUNTZIONAMENDUARI LOTUTAKO ERRONKAK. ZERTAN ETA NOLA HOBETU .....	16
JARDUERAK BURUTZEARI LOTUTAKO ERRONKAK. ZERTAN ETA NOLA HOBETU .....	16

## ESKERTZA

Ebaluazio hau Enred Consultoría enpresak egin du kanpoko ebaluatzaile gisa, eta Emakundek eskatu eta koordinatu du. Horretarako, BEGIRA Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordeko kideen eta Batzordearekin noizbait lankidetzan jardun duten komunikabide eta publizitate-agentzien laguntza jaso du.

Haiek guztiek, BEGIRA Batzordeari eta Batzordeko kideei buruzko iritziak eta balorazioak agertzeaz gain, Batzordeak izan dituen emaitzak eta inpaktuak eta etorkizuneko aukerak eta helburuak ezagutzeko beharrezkoak diren gakoak eman dituzte.

## EBALUAZIOARE HEDADURA ETA HELBURUAK

Bost urte joan dira BEGIRA Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea arautzen duen Dekretua (360/2013) onartu zenetik, eta aldi horretan BEGIRAK egin dituen jardunak, lortu dituen emaitzak eta Batzordearen osaera, funtzionamendua, funtzioak eta etorkizunerako hobekuntzak ebaluatzeko garaia dela pentsatu da.

Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen (aurrerantzean BEGIRA edo Batzordea) ebaluazioak 2013tik 2017ra bitartean Batzordeak burututako lana biltzen du. Batzorde hau 2013an sortu zen 360/2013 Dekretuaren bidez.

BEGIRA aholku- eta topaketa-organoa da, eta EAEko komunikabideetan eta ohiko publizitate-euskarrietan agertzen den publizitatearen inguruko aholkularitza eskaintzean eta azterketak egitean datza haren zeregina, publizitatearen eta komunikazioaren eremuetan sexuagatiko diskriminazio mota oro desagerrarazteko. Halaber, komunikabide publikoek zabaldutako edukiei buruzko kode etikoak daudela zaintzen du, eta komunikabide pribatuekin komunikazioa berdintasun-printzipiora egokitzen laguntzeko akordioak egitea bultzatzen du. BEGIRAK, keak jaso, txostenak egin eta azterlanak lantzeaz gain, sensibilizazioa eta prestakuntza eskaintzen die komunikabideei.

Osaerari dagokionez, BEGIRA Emakundek zuzentzen du, eta Lehendakartzako, kulturaren, hezkuntzaren eta turismoaren arloetan eskudunak diren sailtako, Euskal Irrati Telebistako, Euskal Herriko Unibertsitateko eta emakumeen elkarteetako ordezkariak, kontsumitzaileez eta berdintasunaren, publizitatearen eta komunikazioaren arloetan adituak diren pertsonen osatuta dago.

Ebaluazioaren **helburu nagusia** da BEGIRAREN jardunaren eredia, eraginkortasuna/emaitzak eta ondorioak/eraginak baloratzea, baita oraindik erantzun ez zaien gaiak zehaztea ere, etorkizuneko estrategien eta ekintzen inguruko hobekuntzen eta erabakien oinarri eta gida izan litezkeenak.

Ondoren azaltzen dira **ebaluazioaren helburu espezifikoak**:

1. Ezagutzea:

- BEGIRAK egindako lanaren egokitasun- eta eraginkortasun-maila, Dekretu arautzailearen (360/2013) arabera.
- Batzorde honen egokitasuna eta burutu dituen funtzioak helburuak lortze aldera.

## 2. Ezagutzea:

- Inplikaturako agenteen asebetetze-maila BEGIRAk garatutako lanarekin.
- BEGIRAr buruzko balorazio orokorra.

3. Kode deontologiko eta autoerregulaziokoari atxikitako agentzientzako eta hedabideentzako ondorioak ezagutzea.

4. Arrakasta-faktoreak eta erronkak zehaztea, hobetu edota berri beharreko alderdietan.

5. Iraunarazteko, indartzeko edota hobetzeko alderdiei buruzko proposamenak ezartzea, ondokoak lortzeko:

- BEGIRAREN jardun hobe (antolamendua, osaera, funtzioak).
- Bere estrategien eta jardueren eragin handiagoa esku hartzen duen erakundeetan.
- Ebaluazioan zehar planteatutako erronkei erantzutea.

## EBALUAZIOAREN IKUSPEGI METODOLOGIKOA

Ebaluazio hau, 2018ko apirila eta azaroa bitartean egin, hiru fasetan garatu da:

1. Ebaluazioaren diseinua eta testuingurua zehaztea (apirila-maiatza 2018).
2. Informazioa biltzeko landa-lana (maiatza-iraila 2018).
3. Informazioa aztertzea, txostena lantzea (uztaila-azaroa 2018).

Aplikaturako metodologiak analisi hirukoitz bat du oinarri: dokumentala, kuantitatiboa eta kualitatiboa. Beraz, triangulu-metodologia bat da.

BEGIRAREN ebaluazioa egiteko, parte-hartzean oinarrituta dagoen eta informazioa bildu eta aztertze teknika kualitatibo eta kuantitatiboak konbinatzen dituen metodologia bat aplikatu da. Metodologia horri esker, ikuspegi bikoitz batetik aztertu ahal izan dira BEGIRAREN alderdi guztiak:

- Ikuspegi objektiboa: Batzordeko kideei zein BEGIRAREkin noizbait lankidetzan jardun duten komunikabide eta agentziei zuzendutako inkesta espezifikoko batean lortutako datuekin egindako neurketetan oinarritua.
- Ikuspegi subjektiboa: kontsultatutako erakundeetako pertsona esanguratsuei eztabaida-taldeen bidez zuzenean egindako kontsulta baten emaitzazko pertzepzio eta balorazioetan oinarritua.

Horrez gain, Batzordeari buruzko informazio dokumentalaren berrikuspena egin da (txostenak, aktak, materialak, webgunea eta abar).

BEGIRA Batzordearen jardunari lotutako pertsonen kontsulta egin zaie. Pertsona horien profilak honako hauek dira:

**Prozesuko agenteak:** Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundeko ordezkariak eta Publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordeko kideak.

**Agente onuradunak:** komunikabideak eta publizitate-agentziak.

Informazioa biltzean eta aztertzean genero-ikuspegia erabili da.

AHOLKU BATZORDEAREN EBALUAZIOA PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTA ERABILTZEKO (BEGIRA) (2013-2017)  
Hauek izan dira ebaluaziorako erabilitako metodoak eta teknikak:

**a. Analisi dokumentala.**

**b. Online inkestak**, BEGIRako kideei eta **Batzordearekin lankidetzan aritu diren erakundeetako ordezkari**ei (**agentziak eta hedabideak**) zuzenduak.

**c. Lan-taldeak**, BEGIRako kideekin eta Batzordearekin lankidetzan aritu diren erakundeetako ordezkariekin (agentziak eta hedabideak)

- Eztabaida-taldea, analisiari inkestaren informazio osagarriaren ekarpena egiteko.
- Azken eztabaida-taldea, emaitzak kontrastatzeko.

## EBALUAZIO-MATRIZEA

Ondoren aurkezten da ebaluazio-matrizea, zeinak biltzen dituen ebaluazioak oinarritzat dituen irizpideak, ebaluazioaren dimentsioak, txosten honetan zehar erantzuten zaien ebaluazio-alderdiak eta informazioa lortzeko erabili diren iturriak.

IRIZPIDEAK	DIMENTSIOAK	EBALUAZIO-ALDERDIAK	EGIAZTATZE-ITURRIAK
<b>EGOKITASUNA</b>	Xedea eta estrategia	<ul style="list-style-type: none"> <li>BEGIRaren egokitze-maila EAEko berdintasun-politiken eta -arauen helburuetara eta lehentasunetara, publizitatearen eta komunikazioaren eremuetan</li> <li>BEGIRaren egokitze-maila emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez agentziek eta hedabideek dituzten premietara, haien eskumenen esparruan aplikatuta</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Iturri dokumentalak</li> <li>Agentzietako eta hedabideetako ordezkari zuzendutako inkesta</li> </ul>
	BEGIRA Batzordea	<ul style="list-style-type: none"> <li>BEGIRA Batzordearen osaeraren egokitasuna eta bertako kideen funtzioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Batzordeko ordezkari eta lan-taldee zuzendutako inkesta</li> </ul>
<b>ERAGINKORTASUNA</b>	<b>Prozesua</b> (Batzordearen funtzionamendua)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Batzordearen funtzionamendua               <ul style="list-style-type: none"> <li>Partaidetza, antolamendu eta koordinaziorako mekanismoak</li> <li>Lidergoa inplementazioan eta aurrerapenen jarraipenean</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Batzordeko ordezkari eta lan-taldee zuzendutako inkesta</li> </ul>
	<b>Burututako lanak eta emaitzak</b> (estrategiak eta jarduerak)	<ul style="list-style-type: none"> <li>BEGIRaren helburu espezifiko eta jardueren emaitzen hedadura-maila ebaluatutako aldian</li> <li>BEGIRari buruzko asebetetze-maila</li> <li>BEGIRaren balorazio orokorra</li> <li>BEGIRaren helburuak lortzerakoan aurkitutako zailtasunak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Iturri dokumentalak, inkestak (Batzordeko ordezkariak eta agentzia eta hedabideetako ordezkariak eta lan-taldeak)</li> <li>Agentzietako eta hedabideetako ordezkari zuzendutako inkesta</li> <li>Inkestak (Batzordeko ordezkariak eta agentzietako eta hedabideetako ordezkariak)</li> <li>Inkestak (Batzordeko ordezkariak eta agentzietako eta hedabideetako ordezkariak)</li> </ul>
<b>ERAGINAK</b>	<b>Eraginak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>BEGIRA eta bere funtzioak/jarduerak ezagutzea</li> <li>Publizitateko agentzietan eta hedabideetan antzemandako aldaketak/onurak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Inkestak</li> <li>Inkestak eta lan-taldeak</li> </ul>

## BEGIRAREN HELBURUAK

360/2013 Dekretu arautzailearen arabera, BEGIRA Batzordearen helburuak hauek dira:

- Komunikazioa eta publizitatea aztertzea eta jarraipena egitea (EAEn sortutakoan arreta berezia jarrita).
- Komunikazio eta publizitate ez-sexistaren eremuan sentsibilizatzea, prestatzea eta aholku ematea hedabide publiko eta pribatuei, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa errespetatzeak izan dezan lehentasuna.
- Publizitatean eta komunikazioan sexismoari buruzko irizpideak eta alternatibak ezartzea.
- Herritarren eta instituzioen aldetik kexak jaso eta aztertzea eta, hala badagokio, kexa horiek dagozkien erakundeetara bideratzea.
- Zigor-neurriei hasiera ematea proposatzea beharrezkotzat jotzen denean eta Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

## EBALUATZEKOAK DIREN BEGIRAREN EKINTZAK

BEGIRAREN ekintza nagusiak, Dekretu arautzailearen arabera, hauek dira:

- Publizitate eta komunikazio ez-sexistari buruzko azterlanak.
- Publizitatearen eta komunikazioaren eremuan ekintzak aurrera eramateko egokitasunari buruzko txostenak, genero-ikuspegitik landuak.
- Publizitate eta komunikazio ez-sexistaren sexismoari buruzko irizpideak ezartzea eta irizpide alternatiboak ezartzea:
  - Publizitate eta Komunikazio ez-sexista baterako Kode deontologikoa eta autoerregulaziodunak eta Dekalogoak.
  - Kode deontologikoa eta autoerregulaziodunak ezartzeko sarea.
- Publizitate eta komunikazio ez-sexistari buruzko sentsibilizazioa, prestakuntza eta aholkularitza:
  - Prestakuntza-saioak egoitzan eta osoko bilkuran materialekin batera.
  - Aholkularitza puntualak.
  - Gomendioak.
- Publizitate eta komunikazio sexistaren kasuei buruzko kexak jasotzea eta aztertzea.
- Zigor-prozedurari hasiera emateko proposamena.
- BEGIRARI buruzko hedapena eta sozializazioa:
  - Webgunea Emakunderen atarian, materialak informaziorako/prestakuntzarako, plangintzarako eta jarraipenerako.

## EBALUAZIOAREN LORPEN NAGUSIAK

Atal honetan lortutako emaitzak adierazten dira, batez ere inkesten bitartez eta lan-taldeetan bildutako informazioarekin osatuta. BEGIRAREN ebaluazio-matrizearen arabera daude antolatuta.

Ebaluazioaren alderdi bakoitzari eskainitako atalean, laburpen modura, ebaluatutako alderdi bakoitzaren puntuazioaren/lorpenaren batez besteko balio bat agertuko da. Batez besteko balorazioen esanahia taula honetan adierazten da:

EBALUAZIOAREN LORPENETAN ADIERAZITAKO PUNTUAZIO KUANTITATIBOAK	
BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOA	ESANAHIA
Oso altua	Irizpidea ia % 100era edo % 100ean betetzen da, edo oso nabarmen.
Altua	Nabarmena da alderdi positiboek edo lorpenek garrantzi handiagoa dutela hobetzeko diren alderdiek baino, eta nabarmen betetzen da irizpidea.
Ona edo batez besteko aritmetikoaren gaineko balioak	Alderdi positiboek edo lorpenek garrantzi nabarmena dute, baina hobetzeko alderdi batzuk antzeman dira arretagai izan behar dutenak.
Nahikoa edo batez besteko aritmetikoan	Alderdi positiboek edo lorpenek nahiko garrantzia dute, eta hobetzeko alderdi esanguratsu batzuk antzeman dira arretagai izan behar dutenak.
Baxua	Alderdi positiboak baino esanguratsuagoak dira hobetzeko diren alderdiak, eta beraz balorazioa urria izango litzateke.
<b>OHARRA:</b> Alderdi batean puntuazioak oso heterogeneoak direnean, bildutako iritziak ondoen ordezkatzeko dituzten batez besteko bi balioak adieraztea erabaki da.	

## BEGIRAREN EGOKITASUNA/EGOKITZAPENA

Atal honetan, berdintasunari, publizitateari eta komunikazioari dagokienez, EAEko arauak eta estrategia instituzionalei BEGIRAK ematen dien erantzun-maila baloratzen da, baita zuzentzen zaien agentzien eta hedabideen premia errealei BEGIRAK ematen dien erantzun-maila ere.

### ERANTZUNA ARAUEI ETA ANTZEMANDAKO PREMIEI

#### EAEKO ARAUAK ETA ESTRATEGIAK BERDINTASUNARI, PUBLIZITATEARI ETA INFORMAZIOARI BURUZ (EGOKITZAPEN-MAILA: OSO ALTUA)

- Koherentzia EAEko berdintasunaren arloko araudiarekin eta publizitatea erregulatzen duten arauekin.
- Koherentzia EAEko berdintasunaren arloko planetan zehaztutakoarekin, publizitatearen eta berdintasunaren arloetan.

#### EGOKITZAPENA AGENTZIEN ETA HEDABIDEEN PREMIETARA (PUNTUAZIOA: ALTUA-ONA)

- % 70ek 3-4 punturekin baloratzen dute BEGIRAREN egokitzapena haien premietara eta % 40ek 4-5 punturekin.
- Beste alderdi nabarmen batzuk: Partaidetzazko ikuspegia eta prestakuntza.

### BATZORDEAREN OSAERA ETA FUNTZIOAK

#### OSAERAREN EGOKITASUNA (PUNTUAZIOA NAHIKOA IZAN DA GEHIENGOAREN ALDETIK (8 INFORMATZAILE) ETA BAXUA (5 INFORMATZAILE)

- 14 titular eta 4 ordezeko.
- 3ko batez besteko balorazioak kopuruari eta profilei dagokienez.
- Berdintasunean, publizitatean eta komunikazioan prestakuntza duten profilen komenigarritasuna (inplikazio eta motibazio handiagoa, eragina izateko erabakitzeko ahalmena eta beste profil batzuk dituzten kideen kopurua gehitzea).
- Gizonak baino kritikoagoak dira emakumeak.

#### KIDEEN FUNTZIOEN EGOKITASUNA (PUNTUAZIOA: ONA-NAHIKOA)

- Aholkulari rola da garrantzizkotzat nabarmentzen dena (% 78).
- Funtzioak argi daude % 64rentzat eta ez daude % 36rentzat.



**AHOLKU BATZORDEAREN EBALUAZIOA PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTA ERABILTZEKO (BEGIRA) (2013-2017)**

- % 25 eta % 35 bitartean parte hartzeko prest daude sexismoarekiko irizpideak eta alternatibak hedatu eta proposatzeko.

**ERAGINKORTASUNAREN EBALUAZIOA**

Eraginkortasunak BEGIRAK planteatutako helburuen lorpen-maila neurtzen du baita bere jardueren emaitza nagusiak ere. Parametro edota alderdi bakoitzean lortu diren batez besteko puntuazio-mailak adierazten dira.

**ERAGINKORTASUNA BEGIRAREN FUNTZIONAMENDUAN****GEHIEN BALORATUTAKO ALDERDIAK**

Puntuazioa: Altua

- Osoko bilkuren edukia eta iraupena.
- Bileretarako dokumentazioa bidaltzeko aldez aurretik emandako denbora.
- Emakunderen koordinazioa.
- Urteko Jarduera Planak.

**ERDIZKA BALORATUTAKO ALDERDIAK**

Puntuazioa: Ona

- Barne-komunikazioaren kalitatea eta eraginkortasuna.
- Informazioaren tramitazioaren kalitatea eta eraginkortasuna.
- Lan-batzordeak.

**GUTXIEN BALORATUTAKO ALDERDIAK**

Puntuazioa: Nahikoa

- Slack online tresnak Batzordekide guztiei informazioa helarazteko.

**ERAGINKORTASUNA. BURUTUTAKO JARDUERAK****PUBLIZITATEARI ETA KOMUNIKAZIOARI BURUZKO AZTERLANAK****BURUTZAPEN-MAILA**

Planifikatutakoaren arabera.

- 5 azterlan, eginak eta burutuak eta 1 burutzen.
- Editatuak, sozializatuak eta webgunean erabilgarri.

**HOBETZEKO ALDERDIAK**

- Beren ondorioak eta proposamenak:
  - Ez dira behar bezala aplikatzen BEGIRAREN estrategietan.
  - Laburbildu eta editatu egin beharko lirarteke hedarazteko eta haien kontsulta eta aplikazioa errazteko.

## **PUBLIZITATEARI BURUZKO EGOKITASUNAREN TXOSTENAK**

### **BURUTZAPEN-MAILA**

Beharraren arabera (ez dago oinarrizko-irteerako adierazlerik)

- 3 txosten instituzioen eskaerei erantzunez publizitate komertzialari buruz (garraio-entresak).
- Agentzien eta hedabideen kontsulta puntualei erantzun zaie (aztertutako dokumentazioan zehaztu gabe).
- Instituzioek kezka adierazten dute berdintasun-printzipioaren betearazpenaren aurrean.

### **HOBETZEKO ALDERDIAK**

BEGIRAREN aholkularitza-zerbitzua ez da ezagutzen/erabiltzen/hedatzen behar adina.

Eskariaren presa eragozpen bat da erantzuna kalitatekoa izateko.

Aholkularitza:

- Batzuetan nahastu egiten da jasotako prestakuntzarekin (bereizitako bi jardura dira).
- Zaila da baloratzen adierazlerik ez dagoelako.

## **PUBLIZITATEKO SEXISMOARI BURUZKO IRIZPIDEEN EZARPENA**

### **BURUTZAPEN-MAILA**

Planifikatutakoaren arabera. Kode deontologikoa eta autoerregulaziokoa, Publizitateko eta komunikazioko Dekalogoak:

- Nahiko edo oso ezagunak dira (inkestak % 77).
- Lehenik 51 erakundek sinatu zuten atxikimendua, 2016an 56k eta 2017an 57k.
- Erabilitako partaidetzako metodoak aitzindaritzat nabarmentzen dira.
- Kodea ezartzeko Sarea sortu izanak iraunkortasuna ematen dio prozesuari.
- Aurrerapauso nabarmenak antzematen dira Kodea aplikatzeko zuzendaritzak hartutako konpromisoari eta taldeen borondateari dagokienez.

### **HOBETZEKO ALDERDIAK**

Adierazitako iritzien arabera:

- Arauak eta printzipioak ez dira errazak interpretatzen eta praktikara eramaten.
- Adibide praktikoak eta errealak falta dira erabilgarri izateko behar bezala nola aplikatu jakiteko.
- Estaldura handiagoa: plantillak beste erakunde batzuek bezala.

## **PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTARI BURUZKO SENSIBILIZAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA AHOHKULARITZA (BALORAZIO ANITZAK)**

### **BURUTZAPEN-MAILA**

Prestakuntzan planifikatutakoaren arabera, eta gehiago azpimarratu beharko litzateke aholkularitza.

**Puntuazio Altua:**

- Asebetetasuna ikasitakoarekin.
- Kontaktuak ezartzeko aukera.
- Edukien egokitzapena eta aplikagarritasuna.
- Egindako jardueren iraupena.
- Ad hoc prestakuntza egoitzetan.

**Puntuazio Ona:**

- Helburuen betearazpena.
- Teoriaren eta praktikaren arteko oreka.

**Puntuazio Nahikoa:**

- Kodea aplikatzeko laguntza.
- Giza Baliabideak genero-ikuspegiarekin kudeatzeko laguntza.

Gizonek, item gehienetan, emakumeek baino balorazio altuagoak ematen dituzte.

**HOBETZEKO ALDERDIAK**

Adierazitako iritzien arabera:

- Edukiak/prestakuntza ez dira nahikoak erakundeek genero-ikuspegi batez kudeatu ditzaten Giza Baliabideak edo Kodea behar bezala aplikatu dezaten.
- Denborarik eza zailtasun bat da Kodea egokiro aplikatzeko.
- Kodea eta tresnak ez dituzte langile guztiek ezagutzen.
- Aplikaziorako jarraibide argiak falta dira.
- Agentziek eta hedabideek ez dute ezagutzen kontsulta zehatzei erantzuteko aholkularitza-zerbitzua eta ez da behar adina erabiltzen.

**HERRITARREN KEXEI ERANTZUTEA ETA AZTERTZEA****BURUTZAPEN-MAILA**

- Kanalak daude gaituta kexak egiteko, kexa horiek detektatu eta argudiatzeko tresnen laguntzarekin (IKT laguntza).
- Jarduteko pausoek prozedura bati jarraitzen diote.
- 240 kexa jaso ziren 2013 eta 2017 bitartean.
- 2014az geroztik % 185 gehitu dira.
- 2016tik 2017ra % 73 gehitu dira.

**HOBETZEKO ALDERDIAK**

- 97 kexa 2017an; nahiz eta gehitu diren, zenbaki absolutuetan ez dirudi bat datozenik gizaratearen nahigabearekin eta publizitatearen/informazioaren errealitatearekin.
- BEGIRAK ez dirudi behar adina komunikatzen denik herritarrekin ez eta bere jarduerak ezagutzen direnik ere.
- Sentsibilizazio handiagoa falta da irizpidea, iritzia eta presioa sorrarazteko (batez ere gazteengan).

## ZIGOR-PROZEDURARI HASIERA EMATEKO PROPOSAMENA

### BURUTZAPEN-MAILA

- Zigor-prozedura bati hasiera ematea proposatzeko eskumena: zigor bakar bat Media Markt-i 2006an, eta ebaluatutako aldian zehar bi zigor-espeditante tramitatu dira, azkenean zigortu ez direnak.
- Jarduteko prozeduraren aurretik garrantzizkoa da harremanetan jartzea eta ekintza zuzentzaileak edota gomendioak proposatzea.

### HOBETZEKO ALDERDIAK

- Jurisprudentzia urria.
- Argudiatze juridikoaren premia, zigor-prozedura bati hasiera ematearen egokitasuna eta bideragarritasuna arrazoituko dituenak.
- Legezko prozeduren epe luzeegiak, bukatzen direnerako litekeena baita denuntziatutako kanpaina amaitu izana.

## HEDAPENA ETA SOZIALIZAZIOA

### BURUTZAPEN-MAILA

#### Webgunea

- BEGIRAREN eta zuzentzen zaien erakundeen (eta herritarren) arteko komunikaziorako funtsezko tresna eta kanala.
- Sortutako informazioarekin kudeatua eta eguneratua.
- Sarbidea kexen kanalera.

**Puntuazioa: ona-nahikoa\*** hauei buruz: aurkeztutako informazio orokorra, eskuragarri dauden azterlanak, eguneratzea eta maneia eta nabigazioa. \*Sakabanatuta daude balorazioak; nahiko balorazio jaso dira 3 eta 4 artean, eta baita puntuazio baxuak ere, batez besteko balorazioetan eragina dutenak.

### HOBETZEKO ALDERDIAK

Adierazitako iritzien arabera, webgunea:

- Gutxi erabiltzen da kontsultarako tresna gisa.
- Dinamikoagoa eta ikusmenerako erakargarriagoa izan behar du.
- Informazio praktiko gehiago behar du.

## ERAGINKORTASUNA. FUNTZIOEN/JARDUEREN BURUTZAPENA (LABURPENA)

### PLANIFIKATUTAKOAREN ARABERA BURUTUTAKO FUNTZIOAK/JARDUERAK

Batzordeak bete egin du urteko lan-planetan programatuta zuen gehiena, jarduera hauetan:

- Publizitate eta komunikazio ez-sexistari buruzko azterlanak.
- Publizitate eta komunikazio ez-sexistaren sexismoari buruzko irizpideak ezartzea eta irizpide alternatiboak ezartzea.
- Kode deontologikoa eta autoerregulazikoa Publizitate eta Komunikazio ez-sexista helburu hartuta eta Dekalogoak.
- Kode deontologikoa eta autoerregulazikoa ezartzeko sarea.
- Publizitate eta komunikazio ez-sexistari buruzko sentsibilizazioa, prestakuntza eta aholkularitza: prestakuntza-saioak egoitzan eta osoko bilkuran materialekin batera.
- Publizitate eta komunikazio sexistaren kasuei buruzko kexak jasotzea eta aztertzea.

**NAHIKOA BURUTU EZ DIREN FUNTZIOAK/JARDUERAK EDO OSO ESANGURATSUAK EZ DIREN EMAITZEKIN**

Funtzioetatik hiru ez dira behar adina bete edo ez dituzte emaitza esanguratsuak lortu:

- Publizitatearen eta komunikazioaren eremuan aurrera eramandako jardueren egokitasunari buruzko txostenak, genero-ikuspegitik, eta egindako kontsultei emandako aholkularitza.
- Zigor-prozedurari hasiera ematea proposatzea.
- BEGIRari buruzko hedapena eta sozializazioa.

**BEGIRAREN ERAGINKORTASUNA, ASEBETETZE-MAILA ETA BALORAZIOA****BATZORDEKO KIDEA. BALIAGARRITASUNA/ASEBETETZE-MAILA ETA BALORAZIOA**

Batzordeko kide guztiek baloratu dute BEGIRaren baliagarritasuna **puntuazio altuko batez besteko** batekin, eta 4-5 artean nabarmendu dira **puntuazio gehienak**.

Zehazki, Batzordeak dituen **funtzioen** eta **neurrien** balorazioak batez besteko balio altuekin puntuatu dira: 3,9 puntu eta 3,8 puntu, hurrenez hurren.

**AGENTZIAK ETA HEDABIDEAK. BALIAGARRITASUNA/ASEBETETZE-MAILA ETA BALORAZIOA**

BEGIRArekiko baliagarritasunak/asebetetze-mailak altua-ona mailan jaso ditu balorazioak publizitateko agentzietako eta hedabideetako ordezkarien aldetik. Dena den, **aholkularitza** indartu beharra dago eta **monitorizazio** bat egin, Sareko **agentziei eta hedabideei** zuzendua.

Zehazki, BEGIRaren **funtzioek** batez besteko 3,8 puntuko balorazioa lortu zuten, eta jarraian 3,6 puntu batez beste, **jasotako prestakuntzari** dagokionez. Bere aldetik, **tresnak** 4-5 bitarteko puntuazioan kokatzen dira; **tresnetarako irisgarritasuna** 3,4 puntuazioan kokatzen da, eta **irizpideak ezartzea eta sentsibilizazioa** eremuan 4 puntuko batez besteko puntuazioa lortu da.

Oso adierazle ona da parametro bakar batek ere ez duela jaso eskalako maila baxueneko (1) puntuaziorik.

**ERAGINA. AGENTZIAK ETA HEDABIDEAK**

Eraginari buruzko ebaluazioaren xedea izan da aldaketarik izan ote den zehaztea BEGIRaren jarduerak burutzearen ondorioz, eta zeintzuk izan diren eraginak agentzietan eta hedabideetan. Ebaluatutako alderdiek batez besteko balorazio heterogeneoak lortu dituzte, hau da, sakabanatuta ageri dira iritziak.

**BEGIRARI BURUZKO EZAGUTZA (BALORAZIO ONA-ERTAINA-BAXUA)**

Nabarmentzekoak diren datuak:

- Informatzaileen % 25ek ezagutza-maila altua edo oso altua dute.
- % 60k adierazi dutenez ezagutza-maila ertaina dute.
- % 15ek ziurtatu dute ezagutza-maila baxua dutela edo ez dutela ezagutzen.
- Agentzietako ordezkariak ertainak baino balio altuagoetan kokatzen dira.
- Kodea eta Dekalogoak dira funtzio ezagunenak. Gainerakoak erdizka ezagutzen dira.
- Prozedurei hasiera emateko gaitasunaren ezagutza-maila batez bestekoaren azpitik kokatzen da.
- Gizonek adierazten dutenez ezagutza-maila handiagoa dute (% 40 posizio altuagoetan) emakumeek adierazten dutenaren aldean (% 10 posizio altuagoetan).

### LORTUTAKO ONURAK EDO AURRERAPENAK (BALORAZIO ALTUAK-ONAK\*).

Hauek dira balorazio altuak izan dituzten aldaketak edo onurak:

- Erakundearen eta bertako langileen konpromiso handiagoa berdintasunarekiko.
- Berdintasunezko balioen transmisioa.
- Aurrerapena hizkuntzaren erabilera ez-sexista orokortzean.
- Berdintasunarekin lotutako kontzeptuen identifikazio hobea.
- Lan-lerroen ezarpena.
- Desberdintasunak ezartzen dituzten inertziei eta ikuspegiei buruzko hausnarketa kritikoa (prestakuntzari esker).
- Taldeak edo plantillak berdintasunari buruzko sentsibilizazio handiagoa duten eta aldaketaren eragile gisa diharduten profesionalekin.

\*Zenbait inkestatan adierazi denez, antzemandako onurak ez dira altutzat baloratzen, ulertzen baita emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz erakundeak duen konpromiso/kulturaren abiapuntua lehendik ere altua zela.

**Bestalde, hauek dira puntuazio onarekin lortutako onurak:**

- Berdintasuna txertatzea erakundearen barne-politketan.
- Eduki sexista urriagoa izatea publizitateko informazioaren tratamenduan.
- Emakumeen partaidetza handiagoa publizitateko informazioaren egiletzan.
- Erakundearen irudi publikoaren oihartzun handiagoa eta hobekuntza.
- Partaidetza handiagoa berdintasunarekin lotutako proiektuetan eta ekitaldietan.

**Gainera, hauek izan dira nahiko batekin puntuatu izan diren onurak:**

- Sare profesionalak eta truke eta lankidetzarako sareak zabaltzea sektoreko erakundeekin.
- Kontratazio publikora sarbidea izateko aukera handiagoak.

Desberdintasunak antzematen dira bildutako iritzietan, gizonen eta emakumeen arteko beste parametro batzuetan baino deigarriagoak, kritikoagoak izanik gizonak. Gainera, hedabideek baino iritzi hobea erakusten dute agentziek.

## ARRAKASTA-FAKTOREAK BEGIRAREN HELBURUAK LORTZEKO ETA BERE IRAUNKORTASUNERAKO

Ebaluazioak BEGIRAREN funtzionamenduaren eta burutu duen lanaren arrakasta-faktoreak adierazi ditu, gertuko etorkizunean iraunarazi beharrekoak edo hobekuntza txiki batzuekin indartu beharrekoak. Ondoko atalean adierazten dira faktore horiek:

### ARRAKASTA-FAKTOREAK. BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDUA

1. **BATZORDEAREN EGOKITASUNA.** Berdintasuna sustatzera eta sexismoa ezabatzerantz zuzendutako araudiekin lerrotutako helburuak eta jarduerak. Jarduerak berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren arloan antzematen diren premiei erantzuten diete.
2. **360/2013 DEKRETUAK ARAUTUA.** Araudian bildutako aginduekin lerrotutua. Konpromiso politikoa eta instituzionala babestu eta ematen du. Helburuak eta funtzioak zehazten ditu. Jardute-eremua: publizitate publikoa eta pribatua, Organo aholku-emaietaren eta bere jardueren jarraitasuna eta iraunkortasuna.
3. **EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL INSTITUTUA AITZINDARITZAN.** EMAKUNDE da BEGIRAREN buru eta harengandik jasotzen du laguntza teknikoa.

AHOLKU BATZORDEAREN EBALUAZIOA PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTA ERABILTZEKO (BEGIRA) (2013-2017)

4. **ORDEZKARITZAREN DIBERTSITATEA.** EAEko ordezkari ituzionala eta herritarrena.
5. **EGONKORTASUNA.** Osaeraren egonkortasuna 360/2013 dekretuak arautzen du.
6. **BARNE-JARRAIPENA.** Barne-jarraipena egiteko etengabeko prozesu garden baten emaitza dira urteko memoriak.
7. **LAN-PLANA.** Lan-plana Emakundek lantzen du urtero eta BEGIRAK jarraitu beharreko estrategia gidatzen du.
8. **SARE-LANA ETA LANKIDETZAZKOA.** Ohiko ikuspegia da hori, eta maximizatu egiten ditu elkarrekin batera lantzen diren produktuen eraginkortasuna, efikazia eta eragina.

## ARRAKASTA-FAKTOREAK. BURUTUTAKO EKINTZAK

### 1. KODE DEONTOLOGIKOA ETA DEKALOGOAK

Funtsezko mugarrak:

- Aduituen, enpresen eta agentzia eta hedabideetako profesionalen partaidetzaren, elkarriketaren eta baterako lanaren bitartez landuak.
- Oinarria dira BEGIRAREN eta EAEko agentzien eta hedabideen arteko komunikaziorako eta lankidetzarako.
- Laguntza eta erreferentziako tresna dira.
- Interesa eta konpromisoa Sareko erakundeetako zuzendaritza-taldean aldetik.
- Sareko kide dira publizitatean eta hedabideetan eragin handikoak diren enpresak.

### 2. KODEA EZARTZEKO SAREA

Kodea irmotzeko eta iraunkortzeko borondatearen emaitza. BEGIRAREN esparruan sortua da eta ondorio horretarako kontratatu den Laguntza Teknikoak dinamizatzen du.

### 3. KODEARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

Formatu individualizatua eta presentziala du eta erakunde eskatzaileen egoitzetan ematen da. Erraztu egiten du Kodearen aplikazioa.

### 4. KEXEN PROTOKOLOA

BEGIRAK jarduteko protokolo bat du egituratua eta jakinarazia, publizitatearen eta komunikazioaren erabilera sexistari buruzko kexak jaso, aztertu, ekin edo bideratzeko. (BEGIRA App), non entzuleria kontzientziatuenek erabili egiten dituzten beren eskubideak eta askatasunak hedabideetako eta publizitateko sexismoa detektatu eta salatzeke.

### 5. KEXAK ERREGISTRATZEKO SISTEMA GAITUA

Kexak erregistratzeko sistemak beren jarraipen kuantitatiboa eta kualitatiboa egitea ahalbidetzen du. Urteko memorieta adierazten dira.

### 6. TRESNA PUBLIKOAK ETA HEDATUAK

BEGIRAREN esparruan landutako tresnak publikoak dira eta bere webgunean daude eskura.

## HOBETZEKO ALDERDIEI AURRE EGITEKO BEGIRAREN ERRONKAK

Hobetzeko alderdiak ere antzeman ditu ebaluazioak. Alderdi horiek berrikusi egin behar dira eta erronka eta konpromiso berriak hartzea eskatzen dute helburuak lortzen jarraitzeko. Hobetzeko alderdiei aurre egiteko erronkak ondoren adierazten dira. Erronka horiek BEGIRAREN funtzionamenduari lotutakoekin bat etorri sailkatu dira, baita erakundearen jarduerak burutzeari lotutakoekin ere.

### FUNTZIONAMENDUARI LOTUTAKO ERRONKAK. ZERTAN ETA NOLA HOBETU

Erronka **1.** BEGIRA Batzordean erakundearen eta ordezkarien inplikazio eta partaidetza handiagoa lortzea, helburuak, funtzioak eta jarduerak betetzen.

Erronka **2.** BEGIRAREN jardueren etengabeko jarraipena indartzea, emaitzak eta eraginak ezagutzearren.

Erronka **3.** Batzordeko kideen kopurua handitzea, komunikazioaren eta publizitatearen eremu desberdinetako adituekin edota eremu horietan eragina izateko ahalmena duten pertsonekin (gaur egun Batzordean ordezkartzarrik ez dutenak).

Erronka **4.** BEGIRA Batzordeko kide gisa rolak eta funtzioak betetzeak berekin dakartzan lan-kargari eta denborarik ezari aurre egitea.

### JARDUERAK BURUTZEARI LOTUTAKO ERRONKAK. ZERTAN ETA NOLA HOBETU

#### PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTARI BURUZKO AZTERLANA

Erronka **1.** Azterlanetan lortutako ondorioak eta gomendioak neurri handiagoan sozializatzea eta aplikatzea.

Erronka **2.** EAEko publizitateari eta komunikazioari buruzko diagnostiko eguneratuak eskueran izateko aukera emango duten azterlanak egiten jarraitzea.

#### PUBLIZITATEARI ETA KOMUNIKAZIOARI BURUZKO TXOSTENAK, GENEROAREN IKUSPEGITIK

Erronka **1.** Erakunde eskatzaileei aholkularitza ematen jarraitzea eta zeregin hori areagotzea, publizitateko eta komunikazioko ekintzek, BEGIRARI kontsultatutakoek, ikuspegi sexistarik izan ez dezaten.

#### KOMUNIKAZIOKO ETA PUBLIZITATEKO SEXISMOARI BURUZKO IRIZPIDEEN EZARPENA

Erronka **1.** Ezagutza, erabilera eta eraginkortasuna hobetzea, agentzien eta hedabideen aldetik Kodean eta Dekalogoetan biltzen diren arauak aplikatzerakoan.

Erronka **2.** Sustatzea eta motibatzea Kodean biltzen diren printzipioak agentziek eta hedabideek aplikatu ditzaten.

Erronka **3.** BEGIRAREN jardueren estaldura zabaltzea erakunde gehiago gehitu daitezen Koderan eta Sarera.

Erronka **4.** Sareko erakundearen aldetik Kodearen betearazpena monitorizatzea.



AHOLKU BATZORDEAREN EBALUAZIOA PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTA ERABILTZEKO (BEGIRA) (2013-2017)

### **PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO EZ-SEXISTARI BURUZKO SENTSIBILIZAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA**

Erronka **1.** Publizitatean edota komunikazioan inplikatura dauden hedabide eta agentzia gehiagok, baita beste agente batzuek ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa, genero-ikuspegia eta genero-estereotipoak ezabatzea zuzendutako ekintzak aplikatzearen alde apustu egin dezaten lortzea.

Erronka **2.** Berdintasunaren printzipioa erakundearen kulturara txertatzea.

Erronka **3.** Sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak zuzenduko zaizkion publikoaren profilak zabaltzea.

### **PUBLIZITATE ETA KOMUNIKAZIO SEXISTAREN KASUEI BURUZKO HERRITARREN ETA INSTITUZIOEN KEXAK JASOTzea ETA AZTERTzea**

Erronka **1.** Euskadiko herritarrengan sentsibilizazioa eta ezagutza areagotzea publizitatean eta komunikazioan sexismoa detektatzeko, baita kexak egiteko eskueran dituzten tresnei eta prozedurei buruz ere.

### **ZIGOR-PROZEDURA BATI HASIERA EMATEA PROPOSATzea**

Erronka **1.** BEGIRAREN eskumenak eta argudioak hobetzea zigor-prozedura bati hasiera ematea proposatzeko funtzioa garatu eta betetzeko, behar izanez gero.

### **HEDAPENA ETA SOZIALIZAZIOA**

Erronka **1.** Kanpo-komunikazioa hobetzea BEGIRA eta bere funtzioak ezagunagoak izan daitezen zuzentzen zaizkien publiko desberdinen artean, eta Batzordearen eta agentzi eta hedabideen arteko fluxua hobetzeraren.

Erronka **2.** Webaren edukiak, funtzionaltasuna eta erabilgarritasuna hobetzea.

Erronka **3.** BEGIRAREN estaldura beste profil batzuetara zabaltzea, kontuan hartuta haiek lagungarriak izan daitezkeela publizitateak eta komunikazioak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa errespetatzea lortzeko.